

lapurren azken txarra




C. BUSQUETS



MARGO-EDERDUN
IPIUAK

Nerea Rufa 2-
606445702



Bein batean azeri bat zan.
Zurra ta oso lapur ona bera.
Egaziak ondo ezagutzen eben
Euren artetik ainbat txita ostu ebazan-eta.
Bildurtuta egozan ba, zer egin ezekiela.



Egun baten aate jaunak
azeria ikustea
erabagi eban.

Bildurra be ez eukan makala.
Bada ezpadan be leioa egoaz jo
eta urruneko aldean gelditu zan.
Ikuzi orduko, azeriari agoa
bitza-dariola jarri jakon.

-Ezetz arrapau-esan eutsan
adar-joka aateak.

-Baietz.



Eta beingoan saltau eban leiotik bera.
Baña aate jauna arin arin osiñean sartu zan.

Azeriak ez ekian uger
eta ur-ertzean gelditu zan.

Besteak egiten zituan
jolasak eta barre-zantsoak
bere arerioa bazterrean
kikilduta ikusirik.



Azeria, lotzatuta, azarrez egoan.

«Azeri azeria nazala erakutziko deutset ba!

Naiz da pistirik okerrenari

arpegia emon bear»,

esan eban bere artean.

Esan eta egin. Zugaitzetan txartelak jarri ebazan:

«Leoirik ba'dago datorrela azeriaren aurka».



Latontzi utzakaz jantzi zan goitik beragiño.

Eta geiago barik an urten eban leoiaren billa.

–Zer? Gozerik bai ala, leoi jauna?




Leoiak beingoan jarri zituan
bere erpak azeriaren ganean.
Aren poza ta agin-karrazkada!
Baña bere agin zorrotzak an apurtu zituan.

—Ondo irabazi ta daukak, zatar orrek.
Iñoan pozaren pozez ollo batek,
azeria leoiaren erpa artean ikusirik.



Baña azeria joan zan lez arro etorren.
A zan larrialdia olloarena!
Atzera begiratzeko astirik barik ariñari emon eutsan.



Eskerrak, bere jantzi barriakaz,
azeria zor egoana.



Azeriaren azerikeria beingoan zabaldu zan.
Eta alboetako azeriak laster batu jakozan
zorionak emotera. Jai ederra ospatu eben.
Leoia, barriz, bazter baten
egoan bere arpegi illunagaz.

Azeriaren izena alboko mendietan bizi zan
miru baten belarrietara be eldu zan.

—Lapurretan neu naz naguzi—
Iñoan bere arrokerian minduta — Buzten luze orrek,
laster ikusiko dau nor dan geiago.



Bela bateri deitu
ta eskutitz bat emon eutsan
azeriari eroateko:

«Lapurrenik lapurrena nor dan
zeuk nai dozunean egingo dogu»

Azeriak baietza emon eutsan.
Orduan bako txak
bere aitabitxia aukeratu eban.



Onek zer egin asmetan egozala
beleak esan eutsen:

—Egun baten azeria ta mirua
ollotoki banetara sartu daitezala.
Egazitirik geien arrapetan dabena
«lapurren errege» izango da.


—¡Ederto, ederto! — esan eben aitabitxik biak.




Aukeratu ebezan ollotokiak eta lapurretarako eguna.
Baña azeriak bere artean iñoan:
«Ainbeste kosta jatan famea
arriskuan ipiñil!
Ez orixe».

Eta ollo-zaintzailleagana joan
eta miruaren asmoak
azaldu eutsazan.






Mirua be, azeria sartu bear eban,
ollotegira joan zan.
Eta an egoan txakurrarik
barria emon eutsan.
Gero pozik etxeratu zan
bere artean iñoala:
«Gure azeritzoak anakak ondo bizkor
ibilli bearko ditu».



Azeria ollotegira eldu zanean,
Zast! txakurrak urten
eta aginkada ederra emon eutsan.
Mirua be asko obeto ez zan ibilli.
Ollo-zaintzalleak bota eutsan tiroak
laster ipiñi eban lengo bidean.



Orduntxe kendu jaken
lapurretan jarraitzeko gogoa.
Ta beste lurralde batzuetara
alde egin eben.



Ze esanik be ez dago!
Egaztiak pozik
baño pozago
gelditu ziran.



© Editorial Ramón Sopena, S. A.
Depósito Legal: B. 36.295 - 1969
Gráficas Ramón Sopena, S. A.
Provenza, 93 - Barcelona - 1969 (11.986)
Impreso en España - Printed in Spain

SORTA ONETAKO IPUIAK

Lapurren Azken Txarra

Tximu dantzariak

Bi konejutxoak

Atxo gaxoa

Simon lelo

Asto-narru

Amatxo



Nekanen gora-berak

Iturriko maitagarria

Mitxitxu ta Mitxita

Katu Borrokalaria